

HERNANIKO IBILBIDE MOREA

Hamar geldiuneko bidea, kontatu ez den historia deskubritzeko

 **JENDARTEA** / Amagoia MUJKA TELLERIA

Duela hama-
bost bat urte
hasi zen
proiektua ira-
kiten. Andre
kalea izan
zen lehen pausoa. «Hernaniko
kale izendegia aztertzen hasi
ginen eta ikusi genuen 80 kale
eta plazetatik, 24k gizonen izen
errealak zituztela, izen-abizene-
kin eta, aldiz, emakumerik ez
zegoela. Emakume erreferente
bakarrak erlijioarekin lotuta-
koak ziren, ama birjinak eta an-
tzeakoak», hasi du azalpena
Maialen Apezetxea Lujanbiok.
Bera eta Ixiar Pagoaga Soraluze
Berdintasun Kontseiluko ki-
deak dira eta eskuz esku aritu
dira ibilbide morearen proiektu-
an.

Andre kaleari 2014. urtean jarri zioten izen hori. Ordurako herritar talde batek bospasei urte zeramatzan artxiboak eta herri memoria arakatzeko. Ez zen bide samurra izan, ez da erraza erdialdeko kale oso bati izena aldatzea, erresistentziak sortzen dira horrelakoei. Baina beharrezkoa ikusten zuten. «Emakume errealek ez zeukaten tokirik Hernaniko kale izendegian eta garrantzitsua da kale izenetan emakumeak egotea. Askotan ez dakigu kaleari izena eman diona nor zen edo zer egin zuen, baina badakigu pertsona garrantzitsua izan zela eta horregatik eman diotela kaleari bere izena», zehaztu du Apezetxeak.

Pagoagak ere gogoan ditu bideko trabak. «Andre kalea bezalako kale handi bati izena aldatzea ez da erraza. Kale txiki bati, plaza xume bati, izkina bati aldatzea errazagoa da. Kale luze bati izena aldatzeak aldaketa asko eskatzen ditu eta ez genuen inor haserretzea nahi. Mantso egin dugu eta adostasunetik egin dugu. Bai lehen, bai orain.

Hernanik Ibilbide Morea estreinatu berri du. Ibilbideak hamar geldione proposatzen ditu, kontatu ez den historiaren parte bat deskubritzeko eta orain arte goratu ez diren hernaniarren berri emateko. Oraingoz hamar puntu atondu dituzte, guztiak alderdi politikoan adostasunetik josiak. Aurrera begira ibilbidea osatzen joatea da asmoa, oraindik badelako zer kontatua. Kale izendegiek asko esaten baitute zapaltzen ditugun herriei buruz.

Ibilbide Morearen inaugurazioan ere jende askok parte hartu zuen eta horrek esan nahi du jendea gustura dagoela», gaineratu du Pagoagak.

Emakume errealeen faltak eta kale izendegian zeuden gizon-
ezkoen profilak piztu zuten
gogoeta, gizonetzko militarrek
eta elizarekin lotura estua zu-
tenak askotxo baitira. «Hau al-
datu egin behar dugu», pen-
tsatu zuten. Esan eta egin.
Berdintasun Kontseiluak eta
Udalak elkarlanean osatu dute
Ibilbide Morea eta uneoro

ziurtatu dute bertako alderdi
politiko guztien adostasuna.

«Dezente kostatu zaigu, ez da erraza emakumeak topatzea. Ikerketa beka bat martxan jarri genuen, baina saiakera ez zen ondo atera. Azkenean, gu geu hasi ginen, Ixiar eta biok. Gaia interesatzen zaigu eta artxiiboak arakatzten hasi ginen», kontatu du Apezetxeak.

Hernaniko udal artxiboa, Internet, urtekariak... han eta hemen ibili dira. Ikerketa lan horretan zer deskubritu duten galdetuta, Pagoagak garbi dauka: «Deskubritu dut oso zaila dela emakumeen izenak topatzea. Artxiboak gizona ez bezalako begiradatik daude eginak eta emakumeen izenak apenas geratu diren jasoak. Kasu askotan badakigu lan garrantzitsua egindako emakumeak izan zirela, artxiboetan ere jaso da go emakumeak zirela han eta hemen, baina izen-abizenik gabe. Izugarri kostatzen da emakume horiei izen-abizenak jartzea, badirudi ez dela garrantzitsua izan horiek jasota geratzea. 1936ko gerraren inguruan badira emakumeen izenak, baina errepresioaren bidetik. Emakumeen errefe-

rentziak topatu ditut, baina izen-abizenik gabe. Aldiz, gizon-zkoen kasuan, denak daude izen-abizenekin jasoak. Ez da bakarrik emakumeen absentsia, zerbait gehiago da».

Artxibo lan horretan jaso zuen, adibidez, 1936ko gerrako hiru ahizpa milizianoren berri. «Hori oso interesgarria da. Beti iritsi zaigu gerran emakumeek errepresioa jasan zutela gizonen bidetik, norbaiten ama, alaba, emazte, arreba izateagatik. Baina Hernanin bazi-
ren hiru ahizpa miliziano 16, 18 eta 21 urtekoak. Errepresioa jasan zuten eta kartzelan egon ziren. Ederra izango zen miliziano horiei kale bat eskaintzea Hernanin. Zenbait emakume erreferenteren izenak errepresioari esker geratu dira jasoak, ahizpa horienak bezala», esan du Pagoagak. Izan ere, Ibilbide Moreak 10 geldialdi ditu orain, inauguratu berritan. Baina asmoa da ikertzen eta deskubritzen jarraitzea eta ibilbidea zabaltzea.

IRIZPIDEAK

Kale izendegia aldatzeko zenbat irizpide finkatu dituzte Berdintasun Kontseilutik. Hernanitik mundura egingo dute





lanketa, herriko emakumeekin hasi eta, gero, begirada mundura zabalduz. Irizpide horien arabera, ekarpen sozialak eta kulturalak egin dituzten emakumeak jarriko dituzte kale ize-netan. Emakumeen eskubideen defendatzaileak, langileen eskubideen bultzatzaileak, askatasun eta solidaritatea sustatu dutenak... horiek ere izango dute tokia izendegian. Eta bada beste baldintza garrantzitsua: herriaren erdigunean dauden kaleak eta plazak eskaintzea. «Emakumeen izenak periferiako auzoetan jartzeko joera dago. Guk Hernaniko erdialdean jarri nahi genituen, zentraltasuna eman nahi genien emakume horiei», esan du Pa-

goagak. Bada beste baldintza bat, kasu honetan Hernaniko Udalak jarritakoa: kale izendegian dauden pertsonak hilda egotea.

«Ez da baldintza idatzia, baina senitartekoak bizirik dauden kasuetan haien adostasuna izatea egoki ikusten da», dio Pagoagak. Eta toponimiak ere badauka bere parte lekuei izenak jartzeko orduan.

Irizpide horiekin eta Udaleko alderdi politiko guztien adostasunarekin josi dute Ibilbide Morea. Oraingoan, hamar geldione dituzte; bost pertsona eta bost kolektibo gogora ekartzen dituztenak. Aurrera begira ibilbidea osatzen joateko ideiak ere badituzte jasoak

Goiko irudian, Maialen Apezetxea Lujanbio eta Ixiar Pagoaga Soraluze, Hernaniko Leoka garbitokia atzean dutela. Berdintasun Kontseiluko kide eta Ibilbide Morearen bultzatzaile dira biak.
Jon URBE | FOKU

eta herritarren artean ere egin nahi dute deia, proposamenak egin ditzaten. Proiektuaren garapenean Parean Elkartearen laguntza eta aholkularitza izan dute.

1- ANDRE KALEA

Hernaniko alde zaharraren bihotzean dago Andre kalea. Lehenago Urumea kalea eta Kardaberaz kalea izana, 2014. urtean jarri zioten 'Andre kalea' izena, emakumeek herrian izan duten presentzia aitortu nahian. Ahozko transmisioan jasoa geratu da hernaniar askorentzat "Andre kalea" zela toki hori eta agiri historikoetan ere bada horren arrastoa.

Herriaren memorian jasoa geratu denez, Andre kalean elkartzen ziren emakumeak, aulkiak etxetik jaitsita, eta bertan aritzen ziren elkarri kontuak esaten, josten, haurrak zaintzen... Arropa garbitzaile askoren bizitokia zen kale hori. Kale Nagusia, berriz, dotoreena zen; gizonezkoena, seguruen. Eta Kale Nagusiko aberatsek Andre kalera eramaten zuten arropa, bertan bizi ziren emakumeek Leokan garbi zezaten. Arkitektonikoki ere badauka heldulekua teoria ho-

rrek, bi atariko etxeak asko baitira alde zaharrean.

2- AZAROAK 25 PLAZA

Hernani ez dago indarkeria matxistatik salbu eta Azaroak 25 plazak horixe ekarri nahi du gogora. Eta bereziki Txaro Roman eta Eduardo Benitez hartu nahi ditu gogoan, indarkeria matxistak Hernanin eraildako bi herritar. Txaro Roman 2011ko uztailaren 3an hil zuen bikotekide ohiak plaza horretan bertan. Bere alaba eta laguntzera gerturatu ziren beste bi herritar ere zauritu zituen erasotzaileak. Eduardo Benitez, berriz, plaza horretatik gertu akabatu zuen tiroz gizonezko batek 2009ko maiatzean. Benitez hiltzailearen bikotekide ohiarekin zegoen une horretan. Biak dira indarkeria matxistaren biktimak. Azaroak 25 plazan morez margotuta dagoen bankuak, hain zuzen, herritarrei gogorarazten die indarkeria matxistaren egunerokotasun garrantza.

3- AIMAR ELOSEGI ANSA "MOIO" KALEA

«Izan nahi zuena izateko oztopo sozialak gainditu ezinik bere buruaz beste egin zuen



Jon URBE | FOKU



Jon URBE | FOKU



Teresa TODA

transexuala». Hori dio Aimar Elosegia Ansa “Moio” kalean jarritako plakak. 2007. urtean bere buruaz beste egin zuen, 21 urte zituela. Heriotza horrek herria latz astindu zuen eta Hernani transfobiaren aurka esnaraztea lortu zuen.

«Kale horri Moioaren izena jarrita herri memoria eraiki nahi dugu. Jendeak galdetu dezala zein zen Moio eta zergatik jarri dioten bere izena kale horri», nabarmendu du Ixiar Pagoagak. Ibilbide Morean protagonistak ez dira emakumeak bakarrik, betaurreko moreekin egindako ibilbidea baita, eta bertan transak ere badaude.

Inaugurazioaren egunean, Loratuz Lotu Trans Elkarteko Bryan Altimasberesek parte hartu zuen Moio kalean. Nabarmendu zuenez, Moiori esker beretzat bidea errazagoa izan da.

4- JOXEPA ZUBELDIA ELIZEGI KIOSKOA

Joxepa Zubeldia Elizegi 1867. urtean jaio zen Hernaniko Ibarluze baserrian. Baserriaren jabea Madrilgo mediku entzutetsu bat zen eta ohitura zuen baserriko alabak bere

etxera neskame eramatekoa. Neskato zela joan zen neskame Madrilera. Neskametzatik ateratzeko bidea ezkontzea zen eta Burgosko gizonezko batekin ezkondu zen Joxepa. Bost seme-alaba izan zituzten. 1904. urte inguruan Hernanira etorri ziren bizitzera eta azken bi alabak Hernanin jaio ziren. Hasieran Portun bizi izan ziren eta gero, Kale Nagusian. Senarra meatzeetan lan egina zen eta oso gaixo zegoen, askak jota, eta apenas har zezakeen arnasa. Joxepak janaridenda ireki zuen Kale Nagusian bertan eta berak aterazituen aurrera seme-alabak.

Madrilera neskatotan joan bazen ere, euskarari eutsi zion eta etxean euskaraz hitz egiten zuen seme-alaba guztiekin. Oso gustukoa zuen idaztea eta beti aritzen zen errezoak eta bertsoak idazten.

Etxean alabek ez omen zioten idazten uzten. Hartara, urtero pare bat asteko egonaldia egiten zuen bere lagun Luisa bizi zen Barkaiztegi baserrian. Bertan gordetzen zituen bere bertsoak, ganbarako kutxa batean. Joxepa hil zenean bere bilobak saiatu ziren kutxa hartako idatziak topatzen, baina

ustez bere alabek erre egin zituzten. Alabak asko lotsatzen omen ziren ama bertsolaria zelako eta jendaurrean kantatzen zuelako. Hortaz, bertso asko idatzi bazituen ere, sorta bakarra gorde da, 1918an Hernaniko erietxera baztanga zuten gaixoak ekarri behar zituztela-eta izandako matxinadari buruzkoa. Garaipena ospatzeko, Ezkiaga pasealekuan egindako herri bazkarian, mahai gainera igota kantatu zituen bertso horiek Joxepak. Eta eguberritan eta San Joan jaietan ere Kale Nagusiko bere balkoitik bertsoz erantzuten zien kalean bertsotan zebiltzanei.

Aurrerantzean Ezkiagako kioskoak Joxepa Zubeldia Elizegiren izena izango du. Uda ondoren kioskoa berritzeko proiektua dago eta bertan elkarlanean arituko dira Maialen Lujanbio bertsolaria eta Arrate Rodriguez eta Carlos Nddungmandum diseinatzaileak.

5- LEOKA GARBITOKIA

Etxean urik eta garbigailurik ez zegoenean, garbitokietara joan behar izaten zen arropa garbitzera. Hernanin Leokako garbitokia zen garrantzitsuenetakoa. Arropa garbitzaileek,

beren etxeko arropa garbitzeaz gain, beste etxe batzuetarako egiten zuten lan. Arropa pieza bakoitzeko kobratzen zuten. Lana ez zen samurra, baina garbitokia emakumeen topalekua zen, kontuak esateko eta elkar zaintzeko tokia.

Hernaniko Leoka 1538an eraiki zuten lehenengoz iturriaren inguruan eta 1664an, eraberritu. Gerora hainbat esku hartze izan dira bertan, 1728an eta 1896an. Gaurko garbitokia 1916an eraiki zuten.

Bertan lanean aritutako hernaniarrek kontatua da arropa izan edo ez, Leokan gustura elkartzen zirela emakume asko. Ramon J. Senderren “Requiem por un campesino español” liburuan kontatzen denez –Aragoin dago girotua–, apaizen aholkua izaten zen ez uzteko umeei garbitokietara joaten, bertan emakumeek libreki hitz egiten zutela eta arriskutsua zela.

«Garbitokiak leku politikoak ziren. Lanera joaten ziren, baina ez bakarrik lanera. 2000. urtean, Leoka berriro genuenean, bertan aritutako bost emakume topatu genituen. Eta denek esaten ziguten lana gogor egiten zutela, baina ondo pasa-



5.

Teresa TODA



6.

Teresa TODA



7.

tzen zutela», gogoratu du Pa-goagak. Izan ere, 2000. urtean, bera Langile Ikastolako irakasle zela, ikasleekin batera espazioa txukundu eta bertako historia jaso zuen. Geroztik Berdintasun Kontseiluak hartu du erai-kina zaintzeko konpromisoa eta urtero egitarau kultural in-teresgarria izaten da bertan.

6- IBARROLABURU-LORENZA PLAZA

Portu auzoko bihotzean dago orain arte Ibarrolaburu plaza izandakoa. Aurrerantzean, Iba-rrolaburu-Lorenza plaza izan-go da, izena osatu baitiote.

Javier Ibarrolaburu hil ze-nean, 1954. urtean, haren alar-gun Mari Cruz Lorenza Lashera-sek 50.000 pezetako diru ekarpena egin zion Udalari eta Portuko auzoan langileentzako etxebizitza merkeak eraikitze-ko eskatu zion. Lorenzaren desioa zen langileen bizi baldintzak hobetzea. Eraiki zituzten langi-leentzako etxeak, eta etxegu-nean sortutako plazari ‘Ibarro-laburu’ izena jarri zioten. Lorenzaren erabakia izan zen diru hori Udalari ematea eta be-re ekimenez eraiki ziren etxeak, baina gaur arte haren izenik eta izanik ez da agertu inon. Aurre-

rantzean, Ibarrolaburu-Lorenza plaza izango da Portu auzokoa.

7- INDUSTRIAKO EMAKUME LANGILEEN PASEALEKUA

Industria gizonen eremua zela uste bada ere, emakumeek lana majo egin dute bertan. 1939. eta 1975. urte bitartean sekulako industria garapena gertatu zen Euskal Herrian zein Hernanin. Industriak eskulan merkea behar zuen eta horrek eragin zuen etorkinen etorrera eta emakumeen lan munduratzeara.

Sexuan oinarritutako lan ba-naketa nabaria zen eta emaku-meek prestigio gutxiko eta kualifikatu gabeko lanak egiten zituzten. Fabriketako lanaz gai-nera, etxean ere jarraitzen zuen lanak, testuinguru zail hartan sosak behar zirelako. Hernanin sos gehiago ateratzeko bidea zen, adibidez, etxean zelofan poltsak ekoiztea. Esku-lanak emakumeen lantzat hartzen zi-ren eta beltzean eta produk-zioaren arabera ordaintzen zie-ten, inongo lan eskubiderik gabe. Hernaniko emakume as-ko aritu zen lan horretan; bere-ziki ezkontutakoak, horiek ez baitzituzten fabriketan kontra-tatzen.

Frankismoaren akaberran lan-gile klasea, oro har, eta emaku-meak zehazki antolatzen eta borrokatzen hasi ziren. Berezi-ki esanguratsua izan zen Her-naniko Papelera de Zicuñaga S.A. lantegiko emakumeek, sol-data jaitsi zietelako eta baldin-tza duinak eskatzeko, 1967an abiatutako greba.

Ibilbide Morearen inaugura-zioaren egunean, lehengo eta oraingo migrazioa irudikatzen duten bi emakume elkartu zi-tuzten aipatu pasealekuan. Ba-ta, 70eko hamarkadan Burgo-setik Hernanira etorria, bera bakarrik, 15 urte zituela. Herna-nin lanean hasi, aitari lana to-patu eta familia osoa ekarri zuen Hernanira. Bestea, Ugan-datik etorritako emakume bat. Enpresetan ingeles klaseak ematen ditu eta aurreiritzien zama sumatzen du egunero. «Beltza eta emakumea naizela-ko denek uste dute garbitzera joaten naizela enpresetara. In-geles klaseak ematera joaten naizela esaten dudanean harri-tuta geratzen dira».

8- CARMEN ADARRAGA ELIZARAN PARKEA

1921ean jaio zen Carmen Ada-rraga Elizaran, hamabi anai-

arrebez osatutako familia za-bal batean. “Adarragatar kiro-lariak” ezizenez ziren ezagu-nak, kirolean abilak zirelako. Carmen Adarragak sortu zuen Hernaniko lehen saskibaloit aldea, artean gizonetzkoen tal-derik ez zegoenean. Espainia-ko saskibaloit selekzioaren his-toriako lehenengo kapitaina izan zen eta hiru aldiz izan zen Espainiako txapeldun Donos-tiako emakumezkoen taldea-rekin. Eskubaloit eta belar hoc-keyan ere oso jokalaria izan zen, Espainiako bi selekzioe-tan aritu zen eta estatuko txa-peldunorde izatera iritsi zen eskubaloian. Carmen bizi izan zen garaian kirola egitea oso gaizki ikusia zegoen emaku-meen artean. Ondoren ezarri zen erregimen frankistan, emakumeen kirola debekatzearaino iritsi ziren.

9- KULTURARTEKO PLAZA FEMINISTA

2021eko irailaren 11n ireki zen Hernaniko Kulturarteko Plaza Feminista, feminismoaren alde eta arrazakeriaren aurka lan egiteko erreferentziazko espazio modura. Hernaniko emakumeen aspaldiko alda-rrikapena zen Emakumeen



Teresa TODA



8.



9.

Jon URBE | FOKU

Etxearena eta askotariko prozesu eta urratsek gorpuztu dute, azkenean, hausnartzeko, formatzeko, artikulatzeko eta saretzeko helburua duen espazio hau.

Egun osoan zabalik egoten da eta askotariko zerbitzu, ekimen eta baliabideak topa daitezke bertan: gaur-gaurkoz, Emakumeentzako Jabetze Eskola, sexu eta bikote aholkularitza, emakumeentzako aholkularitza juridikoa, elkar zaintzeko talde iraunkorra, dokumentazio gunea, erakusketak, hitzaldiak, mahai-inguruak, tailerrak...

**10- DIONIXI LIZEAGA
AGERRE “PAGUAKO
MAIXTRA”**

Hernaniar askoren oroimean da Dionixi Lizeaga Agerre “Paguako maixtra”. 1894. urtean jaioa, 40 urtez aritu zen auzoko haurrei eskolak ematen.

Hernaniko Pagoaga auzoa, baso ederrez inguratua, alde zaharretik hamar kilometrora dago. Auzoan ez zegoen ez elizarik ez eskolarik, eta bost kilometrora zegoen Ereñotzura joan behar zuten haurrek ikasi ahal izateko.

Hamar seme-alabetan helduenetakoa zen Dionixi eta aita ikasketak eman nahi izan zizkion. Etxean jaso zituen lehendabizi, neskame baten eskutik, eta gero Donostiara eramane zuten, ikasketetan sakondu zezan. Ikasitakoa zabalteari ekin zion Dionixi eta Pagoaga auzoan bertan hasi zen, anai-arrebak eta auzokideak hartuz etxeko sukaldean bertan, 1914an Pagoagako eskola sortu zen arte.

Eguna eta gaua lanean ematen zituen. Egunez lan egiten zuten gazteei klaseak ematen zizkien gauetz. Iluntzeko eskola horietan emakumerik ez zegoela ohartuta, igandeak eta jai egunak eskaintzen zizkien neskatoei, haiek ere ikas zezaten.

Eulalia Aranburu hernaniarrak zabaldu du Dionixi Lizeagaren berri. Aranburuk sekulako lana egin du Hernaniko memoria jasotzen eta zabalitzen eta Dionixiren kontuak ere ondo jasoak ditu, lankide izan baitzuen. Ibilbide Morearen inaugurazioan gustura parte hartu zuen Eulalia Aranburuk, bizirik dagoen Hernaniko herri memoriaren ahots oso interesgarria denak.

Itsasu

Joxean AGIRRE

Bagirak Itsasun bezperan antolatu zituen ekitalditan Jean-Louis Davantek kontatu zuen garai batean Aberri Egunari «Abeberry Eguna» esaten ziotela, egun hori neurri batean Jakesen ekimenari esker antolatzen zelako. Gipuzkoako herri batean guk «Alberdi Eguna» deitzen genion egun horri antzeko arrazoiengatik.

Urte batzuk lehenago Hegoaldean Ekin bezalaxe, ikasketak bukatu eta etxera itzuli zen ikasle talde batek sortu zuen Enbata Iparraldean («Embata» idatzi zuten lehen urteetan) eta tartean zen, noski, Jakes Abeberry, Mixel Burukoa, Ximun Haran eta beste batzuekin batera.

Handik urte gutxira, 1963an (duela 60 urte), antolatu zuten Aberri Eguna Itsasun eta Hegoaldearekiko paralelismoekin jarraitzearen, Gernikako Arbolaren altsuma bat landatu zuten Ximun Haranek eta Julen Madariagak, Enbataren izenean lehenak eta ETArenean bigarrenak.

Hegoaldeko jendea ere izango zen Aberri Egun horretan Eneko Irigarayk bere “Aljeriar konexioa. ETaren sortzaile baten ibilerak” elkarrizketa liburuan gogoratzen duen pasadizo batek erakusten duenez. Urte batzuk lehenago soldaduska egin zuen Enekok Oiartzungo Arkaleko kuartelean eta handik ezagutzen zuen Dapena koronela. Itsasun bildu zirenen artean koronel hori ikusi zuenean (ordurako muga pasatu eta Iparraldean zebilen) Ximun Haranengana joan eta seguru zegoela esan zion, Dapena koronela ikusi zuela bildutakoen artean. Enbatako kide batzuek gizona hartu, han inguruan zegoen zuhaitz baten kontra jarri zuten eta matrikula zerrenda bat eta argazki makina kendu zizkieten. Gertakari horren ondorioz, Ximun Haranek debekaturik izan zuen aldi batez Hegoaldera pasatzea.

Gauzak asko aldatu dira Ipar Euskal Herrian ere, joan den igandeko Aberri Egunak frogatu zuenez.

Guk urteak eman genituen gaztetan (zenbat itzuli bizikletan) Ipar Euskal Herri mitifikatu baten peskizan, hango kulturarekin, kantutegiarekin, hizkuntzarekin eta folkloreakin liluratuta, baita paisaiarekin ere. Gaur bertako giro politikoak, bakegintzarekiko izan duten konpromisoak, lurraren defentsak, giza eskubideen alde erakusten duten adoreak eta lortu duten gizarte osoaren inplikazioak txunditzen gaituzte tarteka, hainbeste non badauden gure artean Jean-René Etchegaray macronistari, erdi brometan bada ere, «gure lehendakaria» esatera iristen direnak ere.

Exotismoaren peskizan joaten ginen lehen. Orain anaikidetasuna aurkitzen dugu. •



10.

Teresa TODA